

Hiznet Hizkuntza Plangintza 2013/14

Nafarroan eremukako azterketa soziolinguistikoa



Egilea: Miren Zugasti Perurena

Tutorea: Mikel Arregi Pérez

AURKIBIDEA

1- Laburpena.....	3
2- Sarrera	4
3- Metodologia.....	5
4- Nafarroan eremukako azterketa soziolinguistikoa	
4.1. Datu demografikoak	6
4.2. Hizkuntza gaitasuna	
Hizkuntza tipología eremuaren arabera.....	10
Euskararen ezagutza	14
Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera	14
4.3. Hizkuntza transmisioa.....	15
Lehen hizkuntza adinaren arabera	16
Elebidunen adinaren araberako bilakaera.....	19
Elebidunen eremuaren araberako bilakaera.....	20
4.4. Euskararen erabilera	
Euskararen erabilera hizkuntza tipologiaren arabera	22
Euskararen erabilera adinaren arabera	23
4.5. Euskarari buruzko jarrerak	
Jarreraren tipología.....	26
5- Laburbilduz	29
6- Bibliografia.....	31

1- LABURPENA

Hasiera batean nire asmoa, zonifikazio bakoitzean aurkitzen den udalerraren azterketa soziolinguistikoa egitea zen. Horretarako, beharrezkoak ziren datuak biltzen hasi nintzen eta Nafarroako Estatistika Institutuan argitaratuak dauden udalerrikako azken datuak 2001ekoak zirela ohartu nintzen. Dirudienez, datu bilketa iada egina dago baina, udalerrikako datuen parametro batzuk aldatu egin dira, emaitza zehatzagoa lortzeko asmoz.

Lehenik, esan beharra dago euskara elkarte batzuek, behin behineko kale neurketak egin izan ohi dituztela. Dena den, ezinezkoa izan zait hiru udalerrien datuak lortzea eta bateratzea.

Hori dela eta azkenean, Nafarroako eremukako azterketa soziolinguistikoa aztertzea erabaki dut, euskarak 2011ean izan duen egoera 2001ekoarekin alderaturik. Argitaratu gabe dauden datuak, aldiz, euskarak nafarroan bizitzen duen egoera adierazten duela ondorioztatu dut.

2- SARRERA

Lan honen xedea Nafarroan eremukako azterketa soziolinguistikoa azaltzea izan da. Nafarroako Foru Komunitatea hiru eremutan banatzea ezartzen du Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak, eta eremu bakoitzeko biztanleek erabiltzen duten hizkuntza da banaketa-irizpidea: eremu euskalduna Nafarroako iparraldean dago, eremu mistoa erdialdean (Iruña barne), eta eremu ez-euskalduna Foru Komunitateko erdialdean eta hegoaldean. Hori dela eta, egun euskararen erabilera eta hizkuntza transmisioa ez da lurralde osoan bermatzen. Izan ere, eremu erdaldunean, erakunde publikoetan ez du presentziarik, euskaraz bizi nahi duen jendea ere.

Azterketa burutu ahal izateko, erakunde publikoetan argitaratutako datuez baliatu naiz. Batetik, Nafarroako Estatistika Institutuak web orrian adierazitako datuak aintzat harturik eta bestetik, V. Inkesta Soziolinguistikoan (2011) argitaratutako emaitzak aztertuz, analisi kuantitatiboa gauzatu da. Erakunde bakoitzean erabilitako datuak askotan ez dira modu berdinean bildu eta horrek hamarkadaren aldaera zein izan den azaltzea zailtzen du. Hala ere, iraganeko eta orainaldiko egoeratik abiatuta, beharrezkoa da konparaketa hau burutzea. Horretarako 2011. urteko 16 urte gorako biztanleria kontuan harturik, datu demografikoak, hizkuntza gaitasuna (hezkuntza sistemako eredu ezberdinen matrikulazioak adieraziz), euskararen erabilera eta jarrera aztertuko da, beti ere 2001. urteko datuekin alderaturik.

Arestian aipatu dudana bezala, Nafarroako Gobernuan argitaratu gabe dauden datuek, egun, euskarak bertan bizi duena azaleratzen du. Hau da, hizkuntza plangintza gauzatzeko beharrezkoa da hainbat azterlan kuantitatibo eta kualitatiboak burutzea, sustatzea eta zabaltzea hizkuntzaren bizi-iraupena bermatzeko. Nafarroan, borondate politikoa falta da. Hain zuzen, hori guztia argiago ulertzeko, euskararen inguruko jarrera modu kualitatiboan aipatzen da. Azkenik, emaitzen ondorioak modu laburrean biltzen saiatu naiz.

Sarrera honekin amaitzeko, ez nuke aipatu gabe utzi nahiko sakontze egitasmo hau egiten lagundu didan tutorea Mikel Arregi. Eskerrak eman nahi diot bere aholku eta gomendioengatik eta lanari itxura pixka bat ematen laguntzeagatik.

3- METODOLOGIA

Azterlanaren diseinua egiteko garaian argitaratuak dauden bi ikerlan hartu ditut aintzat. Batetik, Nafarroako Euskarabideak 2008. urtean argitaratutako Euskararen Egoera Nafarroan (2008) eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak 2011. urtean egindako V. Inkesta Soziolinguistikoa.

Datuak biltzerakoan aldiz, Nafarroako Estatistika Institutuak biltzen dituen datuetan oinarritu naiz. Bertan azaldutako datuak urriak direnez, Eusko Jaurlaritzako inkesta soziolinguistikoa azaldutako datuekin osatu dut.

Kontuan izanik, lan honen helburua Nafarroako eremukako azterketa soziolinguistikoa egitea izan dela, eremu bakoitzeko adin- taldearen hizkuntza gaitasuna, transmisioa eta erabilera adierazten saiatu naiz.

Bestalde, eskolen inguruko matrikulazioen datu bilketa lortu ahal izateko, topaguneko arduradunari esker, Nafarroako Ikastola Elkarteak, 2001 eta 2011 urteetako matrikulaziodatuak jakinarazi dizkit.

Azkenik, esan beharra daukat, lan hau burutzeko garaian, nire asmoa, ez zela elkarrizketak edo kale neurketak egitea, argitaratuak dauden datuekin, azken hamarkadako datu soziolinguistikoen bilakaera aztertzea baizik, Nafarroan euskaren egoera hobeto ulertu ahal izateko.

4-NAFARROAN EREMUKAKO AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOA 2011

4.1-DATU DEMOGRAFIKOAK


Nafarroako lurraldean guztira 640.130 biztanle daude. Biztanlegoaren gehiengoak eremu mistoan bizi da eta oro har, euskararen presentzia %28ak osatzen du. Beste guztiak erdaldunak izanik. Euskararen aldeko emaitza gehigarriagoak izateko, eremuen banaketak asko zailtzen duela esan daiteke.

Ondoren Nafarroan eremukako biztanlegoaren datu demografikoak azalduko ditugu

	Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez euskalduna	
	2001	2011	2001	2011	2001	2011
0-4 urte	2292	3288	15560	20179	8849	11497
5-9 urte	2223	3039	13630	19797	8535	10626
10-14 urte	2514	2533	13581	18351	9057	10287
15-19 urte	2974	2377	16078	17054	10470	10006
20-24 urte	3839	2765	22463	18336	14135	11044
25-29 urte	4375	3344	26852	22897	15668	13353
30-34 urte	4370	4268	26488	29840	16282	17365
35-39 urte	4214	4970	25131	32151	16184	18097
40-44 urte	4186	4791	22345	30502	15276	17428
45-49 urte	3819	4452	20311	28012	12797	16814
50-54 urte	3590	4268	19692	24194	11587	15460
55-59 urte	3070	3810	17511	21098	10949	12920
60-64 urte	2625	3468	12851	19623	8948	11319
65-69 urte	3091	2910	13514	16855	11102	10547
70-74 urte	2961	2372	11724	12180	10999	8252
75-79 urte	2337	2624	9569	11959	9578	9336
80-84 urte	1523	2071	6275	9113	6189	7967
85-89 urte	828	1265	3694	5683	3309	5206
90-94 urte	357	468	1431	2333	1283	1955
95-100 urte	71	109	356	688	249	451
100 <	4	14	38	92	26	58
Guztira	55263	59207	299094	360938	201472	219985

Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Eremu euskalduna




Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Datuek erakusten digutenaren arabera, jaiotze tasa zertxobait hazi bada ere, duela hamar urte baino gazte gutxiago bizi da. Aldiz, heldu eta adinekoen zenbatekoa igo egin da. Beraz, gero eta gizarte zaharragoa dela esan daiteke. Bizitza esperantza handitu egin dela egiazta dezakegu. 65 urte baino gehiago dituztenek eremuko biztanleriaren %19,98 osatzen dute.

Atzerrian jaiotako biztanlegoa % 3,13 izatetik %6,3 izatera pasatu da azken hamarkadan.


Eremu mistoa



Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Eremu mistoan 360.938 biztanle daude .Horietatik biztanle kopururik handiena 25 urtetik 59 urteetakoak osatzen dute(%52,27).Azken hamarkadan adin-talde hontan dauden biztanleak gora egin dute, haur kopuruarekin batera.70 urtetik aurrerako biztanle kopurua zertxobait igo bada ere ez da esanguratsua izan.

Eremu erdalduna



Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Datuek diotenez, jaiotze tasa zertxobait gora egin duen arren, biztanlegoaren gehiengoa 25 eta 59 urte tartean biltzen da (%50,65). Oro har, azken hamarkadan biztanegoa zaharragoa den arren, datu deigarri bat aipatu behar da. 70-74 adin tarteko beherakada.

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA


Ondoren adierazitako datuak, 2011. urtean 2 urte edo gehiago bizitzen zeramatzaten biztanleen kopuruarenak dira. Gainontzekoak, hau da, biztanlegoaren %2,86, erroldatu berriak edo bizitzen denbora gutxi daramatenak direla esan genezake.

Hizkuntza tipología eremuaren arabera

	Nafarroa		Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu ez euskalduna	
Elebiduna	85.861	%13,81	33.593	%58,44	43.947	%12,56	8.321	%3,88
Elebidun hartzailea	88.903	%14,30	10.420	%18,12	56.565	%16,16	21.918	%10,22
Erdalduna	435.756	%70,07	12.433	%21,63	242.278	%69,23	181.045	%84,44
Esleitu gabe	11.299	%1,82	1.041	%1,81	7.144	%2,04	3.114	%1,69
Guztira	621.821	%100	57.487	%100	349.934	%100	214.400	%100


**Nafarroako Estatistika Institutua-2011*

Datu hauek erreparaturik, hurrengo grafikoetan, eremuka 2001.urtearekin alderatuz , eman den bilakaera ikus daiteke.

Eremu euskalduna


Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Eremu mistoa



Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Eremu ez euskalduna



Nafarroako Estatistika Institutua (2011)

Ikus daiteken bezala, elebidun gehienak eremu mistoan daude, biztanle gehien dauden eremuan. Elebidunak biztanlearen % 9,06 izatetik %12,56 izatera pasatu dira azken hamarkadan. Era berean, elebidun hartzailak, hau da, euskara ulertzeko gai direnak baina erabiltzeko zailtasunak dituztenak, igoera nabarmena izan dute (%10,76tik %16,16ra). Eremu euskaldunak bere hortan jarraitu du. Aldiz, eremu erdaldunean deigarria den datua elebidun hartzailen igoera da (%4,15tik %10,22ra). Igoera hau, eskolek eta euskara elkarteek, eremu ez euskaldunean euskararen alde egiten duten lanaren adierazle dela esan daiteke.

Hau guztia argiago ulertu ahal izateko, Nafarroako Hezkuntza Departamentuak

hezkuntza sistemarako eremu bakoitzean ezarririk dituen eredu ezberdinak azalduko ditugu:

-A eredia

Gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan. A eredia ematen duten ikastetxeak

-B eredia

Zati batean euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelania irakasgai bezala izaten da eta irakasgai batean edo gehiagotan ere irakas-hizkuntza gaztelania da, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera. B eredia ematen duten ikastetxeak

-D eredia

Irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik. D eredia ematen duten ikastetxeak

-G eredia


Eredu honetan ez da euskara ematen, ez irakasgai bezala ezta irakas-hizkuntza bezala ere. Hizkuntza eremuaren arabera ezartzen da.

Eredu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen dira eta, beraz, nahitaezkoa da euskararen irakaskuntza; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak baimentzen dira eta eremu ez-euskaldunerako A eta G ereduak.

Ereduen bilakaera nolakoa izan den aztertzeko, batetik Nafarroako ikastola elkarteak 2001/2002 ikasturtean bildu dituen matrikulazio datuak ikusiko ditugu eta bestetik, Nafarroako Gobernuak web orrian 2011/2012.ikasturtearen inguruan argitaratutakoak.

2001/2002 ikasturtea

EREDUA	2001/2002		2011/2012	
A	15059	%18,60	15080	%16,06
B	139	%0,17	217	%0,23
D	16769	%20,72	23554	%25,09
G	48989	%60,51	55018	%58,62
Guztira	80956	%100	93869	%100



NIE Ikastolen Elkarte 2001/2002

Nafarroako Gobernua 2011/2012

Datuak erreparatuz gero, G eredia gailentzen dela esan daiteke. Azken hamarkadan D ereduak gora egin duela antzematen da.

Aipatzekoa da azken urteetan, hezkuntza sisteman aldaketak izan direla hizkuntzaren inguruan. Izan ere, eleaniztasunari buruzko programa berria txertatu nahian (PAI), irakasgai bateko edo gehiagoko curriculum ofiziala frantsesa edo ingelesa, osorik edo zati batean, irakas-hizkuntza bezala erabiliz garatzen da (2011. urtean 2203 ingeles programaren barruan matrikulatuak)

Horrek esan nahi du, eredu zehatz bat aukeratu arren, programa eleaniztuna sisteman txertatzean, ereduaren hizkuntza tipologia ere aldatzen joango dela. Dena den, urte gutxi igaro dira abian jarri den programa berriaren emaitzak zeintzuk izan diren ikusteko. Hurrengo urteetan ikusiko da gai horren inguruan egindako balorazioa baina ukaezina da eragin zuzena izango duela hezkuntza sisteman eta ereduetan.

Hizkuntzaren ezagutza

	Euskararen ezauguera	Nafarroa	Eremu euskalduna	Eremu mistoa	Eremu erdalduna
Ulermena	Ezer ez	435.756	12.433	242.278	181.045
	Zailtasunez	78.458	8.287	49.926	20.245
	Ongi	96.311	35.727	50.585	9.999
Ahozkoa	Ezer ez	458.409	15.303	256.783	186.323
	Zailtasunez	66.255	7.550	42.060	16.645
	Ongi	85.860	33.593	43.946	8.321
Irakurmena	Ezer ez	465.491	17.872	260.379	187.240
	Zailtasunez	63.311	10.490	38.027	14.794
	Ongi	81.719	28.084	44.383	9.252
Entzumena	Ezer ez	474.086	20.113	265.513	188.460
	Zailtasunez	63.231	11.410	37.218	14.603
	Ongi	73.209	24.923	40.059	8.227
	Ez da ageri	11.295	1.041	7.144	3.110

Nafarroako Estatistika Institutua.2011

Euskararen ezagutzari buruz hitz egiten badugu, azken hamarkadan eremu euskaldunari dagokionean, ulermena, ahozkoa eta entzumena maila berdina mantendu bada ere, irakurmenean beherakada txiki bat antzematen da (26.364tik 20.113ra) euskara ongi ulertzen duten biztanle kopurua igo egin da (4.922tik 9.999ra) eremu erdaldunean.

Eremu mistoan eta erdaldunean, oro har igoera nabarmena ikus daiteke. Zailtasunez ulertzen duten biztanle kopurua igo egin da eremu erdaldunean (4.922tik 20.245era)

Hizkuntza gaitasuna adinaren arabera

	Nafarroa	Adina				
		>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Elebiduna	11,7	9,3	9,6	10,1	14,5	20,8
Ekebidun hartzailea	7,5	5,1	6,5	9,2	9,3	7,2
Erdalduna	80,7	85,7	83,9	80,7	76,1	71,9
Guztira	537.000	114.000	115.000	156.000	95.000	57.000

V.Inkesta Soziolinguistikoa

Hizkuntza tipología adinaren arabera aztertzerako garaian, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako V.Inkesta Soziolinguistikotik abiatu naiz.

Inkesta honen arabera, elebidunak diren adin talde kopururik altuena 16-24 urteen artean daude (%20,8) eta 25-34 urte artean. Elebidun gutxien dauden adin taldea, 35 urtetik gorakoak dira.

4.3. HIZKUNTZA TRANSMISIOA

Ama hizkuntzari buruz hitz egiten dugunean, umeak 3 urte bete arte gurasoengandik jasotzen duten hizkuntzaz ari gara.


3urte arte Ama Hizkuntza	Nafarroa		Ereму euskalduna		Ereму mistoa		Ereму erdalduna	
Euskara	35.322	%5,68	24.511	%42,64	9.601	%2,74	1.210	%0,56
Erdara	509.070	%81,87	22.782	%39,63	297.582	%85,04	188.706	%88,02
Euskara eta erdara	23.660	%3,8	6.141	%10,68	14.387	%4,11	3.132	%1,46
Besteak	53.768	%8,65	4.053	%7,05	28.363	%8,1	21.352	%9,96
Guztira	621.820	%100	57.487	%100	349.933	%100	214.400	%100

Nafarroako eremu euskaldunean, 24.511 pertsonen lehen hizkuntza, euskara da. Biztanleriaren % 42,6k euskara soilik jaso du etxean eta % 10,7k euskara eta erdara jaso ditu etxean. Erdara soilik ordea, %39,6k jaso du.

Bada alderik eremuen arabera. Horrela, eremu euskaldunean biztanleriaren ia erdiak euskara izan du lehen hizkuntza.

Lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira eremu mistoan (% 85) eta erdaldunean (% 88). Datu hauen arabera, eremu mistoan elebidun gehien dauden lurraldea izan arren, euskara etxean ez dela erabiltzen baieztatu daiteke. Irakaskuntzatik kanpo, euskara ez da lagunartean, kalean edo lanean entzuten.

Lehen hizkuntza adinaren arabera Nafarroan




V.Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa dioenez, lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagoko

helduen artean dago (% 9,5). Ehuneko horrek behera egiten du adinarekin batera. Gazteen artean, 16-24 urte artekoen artean, handiagoa da euskara eta erdara batera jasotzen dutenen ehunekoa (% 5,1), euskara hutsik jasotzen dutenena baino (% 4,4).

Eremu euskalduna




V.Inkesta Soziolinguistikoa

Eremu euskaldunean lehen hizkuntza euskara edo biak dituztenak nagusi dira adin-talde guztietan 35-49 urte bitarteko adin-taldean izan ezik. Dena dela, lehen hizkuntza euskara bakarrik dutenen ehunekoak behera egiten du adinak behera egin ahala .

Lehen hizkuntza euskara eta erdara dituztenak, ordea, gero eta gehiago dira adinak behera egin ahala. Izan ere, edadetuenen artean % 5 dira eta gazteenen artean % 20.

Lehen hizkuntza erdara dutenen ehunekorik altuena 35-49 eta 50-64 urte bitartekoez dute (% 51 eta % 45,1 hurrenez hurren), eta txikiena 65 urtetik gorakoek(% 36).

Eremu mistoa



V.Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Eremu mistoan lehen hizkuntza erdara dutenak erabat nagusi dira adin-talde guztietan, hamarretik bederatzik baino gehiagok erdara dute lehen hizkuntza. Lehen hizkuntza euskara jaso dutenen ehunekorik handiena, 65 urte edo gehiagokoen artean dago (% 6,7), eta behera egiten du adinak behera egin ahala gazteenen artera iritsi arte. Azken adin-talde horretan, aurreko adin-taldean baino gehiago dira lehen hizkuntza euskara soilik jasotzen dutenak, hau da, % 2,3.

Alderantziz gertatzen da, ordea, euskara eta erdara batera jasotzen dituztenekin, adinean behera egin ahala, gorantz egiten du ehunekoak ia adin-talde guztietan.


Gazteen artean, askoz gehiago dira (% 6,2) euskara eta erdara batera jasotzen dituztenak euskara hutsik jasotzen dutenak baino (% 2,3). Lehenago gertatu zaigun bezala, eremu ez euskaldunean lagina ez da nahikoa euren lehen hizkuntza adinaren arabera sailkatzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu adin-talde guztiak kontuan hartuta % 98,5ek erdara dutela lehen hizkuntza.

Elebidunen adinaren arabera bilakaera

Lehen hizkuntzaren **adinaren arabera bilakaerari** dagokionez, duela 20 urte lehen hizkuntza euskara edo euskara eta erdara zutenen ehunetik altuena 65 urtetik gorakoek zuten (% 13,8) eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, eta 25-34 urte bitartekoek zuten ehunetik txikiena (% 5,4).

Gaur egun ere, 65 urtetik gorakoek dute (% 12) dute ehunetik altuena, baina gazteenek ere aurreko adin-taldeetakoek baino ehuneko altuagoa dute (% 9,5), euskara erdararekin batera jasotzen duten ehunekoaren hazkundeagatik, arestian esan bezala. Izan ere, 16 eta 24 urte bitarteko gazteen % 5,1ek euskara eta erdarajaso ditu batera etxean, euskara hutsik jasotzen dutenak (% 4,4) baino gehiago.

Nafarroako 16 urtetik gorako elebidunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera nolakoak diren aztertuko dugu orain.



V.Inkesta Soziolinguistikoa 2011


Nafarroako 16 urte edo gehiagoko elebidunen ia erdiak euskara izan du lehen hizkuntza (% 47,6), hau da, euskaldun zaharra da (30.000 pertsona). Elebidunen % 15,3k euskara eta erdara jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da

(10.000 pertsona).

Azkenik, elebidunen herenak baino gehiagok ez du euskararik jaso etxean eta euskaldun berria da (% 37,1), 23.000 pertsona, alegia. Azken hauek etxetik kanpo euskaldundu dira, eskolan edo euskaltegian.

Duela 20 urte, ia elebidun guztiak euskaldun zaharrak ziren. Horrela, lautik hiru euskaldun zaharrak ziren (% 76,6), % 7,4 jatorrizko elebidunak ziren eta euskaldun berriak % 16.

Datuak **eremuaren arabera** aztertuz gero, euren arteko aldeak nabarmenak dira.




V.Inketa Soziolinguistikoa

Inketa soziolinguistikoaren arabera, eremu euskaldunean hamar elebidunetatik ia zortzi euskaldun zaharrak dira (% 77,1) eta euskaldun berriak hamarretik bat (% 9,9). Eremu mistoan hamar elebidunetik sei euskaldun berriak dira (% 61,2) eta euskaldun zaharrak eta jatorrizko elebidunak nahiko parekatuta daude (% 20,4 eta % 18,4 hurrenez hurren). Azkenik, eremu ez euskaldunean hamar elebidunetik ia zazpi euskaldun berriak dira (% 66,7), hamar elebidunetik bi euskaldun zaharrak (% 20,8), eta hamarretik bat jatorrizko elebidunak (% 12,5).

Hau guztia kontuan harturik, euskaldun zaharrek eremu euskaldunean duten garrantziaz ohartzen gara. Hau da, euskararen transmisioa lortzeko ezinbestekoa da euskara modu naturalean eta kulturean bizitzen den hizkuntza komunitatean oinarritzea. Andoni Barreña eta Patxi Juaristik, Hizkuntza gutxituak nazioarte mailako testuinguruan azaltzen duten bezala, Munduko beste zonalde askotan, Europar Batasunean ere arrazoi historikoak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak daude hizkuntza

aniztasunaren galera azaltzerakoan. Euskal Herria hiru administrazioetan banatuta egoteak eragin zuzena izan du euskaldunen herri kontzientzia ahultzerakoan eta euskal hiztunak murrizterakoan. Zer esanik ez Nafarroan. Hiru zonifikaziotan banatua izanik, euskarak eskola bidezko transmisioan eragin zuzena izan du. Hain zuzen, euskarazko hizkuntza komunitateak behar bezalako babes ofizialik ez izateak, beste kultura batzuen eragina izatea dakar eta ondorioz identitate kulturalaren galera ekarriko du.



V. Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Azterketarekin jarraituz, adinaren arabera bilakaerari dagokionez elebidunen multzoa asko aldatu dela esan behar da. Izan ere, orain ez bezala, 1991n euskaldun zaharrak nagusi ziren adin-talde guztietan.

2011n, aldiz, euskaldun zaharrek nagusi izaten jarraitzen badute ere, ez da horrela adin-talde guztietan, 50 urtetik beherako adin-taldeetan gero eta ehuneko txikiagoa dute. Horretaz gain, jatorrizko elebidunek pisu handia hartu dute, baina pisurik handiena euskaldun berriek hartu dute, batez ere 35 urtetik beherako artean. Bestalde, azpimarratzekoa da jatorrizko elebidunak 16 eta 24 urtekoen artean euskaldun zaharrak baino gehiago direla.


2011n, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko elebidunen erdia baino gehiago euskaldun berriak dira (% 54,3 eta % 51,7 hurrenez hurren). 1991n, ordea, adin tarte horretako elebidunen % 25,5 eta % 30,2 besterik ez ziren euskaldun

berriak.

4.4. EUSKARAREN ERABILERA

Euskarak gizartean duen erabileraz jabetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indize bat eratu zuen 2001ean. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio, eta honako erabilera-eremu hauek hartuko lirateke kontuan: etxea (bikotekidea, seme-alabak, aita, ama eta neba-arrebak), lagunak eta eremu formala (dendak, bankuak, osasun-zerbitzuak eta udal zerbitzuak).

Argitaraturiko V-Inkesta Soziolinguistikoak **erabileraren tipologiari** buruzko ondorengo datuak adierazten ditu.



Tamalez, Nafarroan neurketa hoiak egiteko datuak falta zaizkigu .Hori dela eta euskararen erabilera neurtu ahal izateko, Nafarroako Estadistika Institutuak argitaratuak dituen datuetan oinarritu naiz.Hau da, etxean gehien hitz egiten den hizkuntza,ulermena,ahozkoa, irakurmena eta idazmena.

Etxean gehien erabiltzen duten hizkuntza	Nafarroa		Eremu euskalduna		Eremu mistoa		Eremu erdalduna	
Euskara	28.015	%4,5	19.411	%33,76	7.626	%2,18	978	%0,46
Erdara	523.209	%84,15	26.989	%46,95	303.846	%86,83	192.374	%89,73
Euskara eta erdara	27.268	%4,38	7.690	%13,38	15.964	%4,56	3.614	%1,68
Besteak	43.330	%6,97	3.397	%5,91	22.499	%6,43	17.434	%8,13
Guztira	621.822	%100	57.487	%100	349.935	%100	214.400	%100

Datuak erakusten dutenaren arabera, eremu euskaldunean, etxean gehien erabiltzen duten hizkuntza erdara da (%46,9) eta ondoren euskara (33,8).

Emaitza hauen aurrean aipatzekoa da adineko guraso asko daudela, euskaraz jakin arren, euren seme-alabei ez erakustea erabaki izan dutenak. Euskal hiztuna izanik, konplexua zuten kanpora begira, ez zirelako onartuak sentitzen eta balio gabeko etxeko hizkera bezala hartzen zutelako. Hori ekiditzeko, seme-alabekin erdaraz hitz egiten zuten.

Bestetik, esan behar da euskararen erabilerak eremu euskaldunean behera egin duen bezala (%43 izatetik %33,8 izatera), euskara eta erdararen erabilera igo egin dela azken hamarkadan (%12,38 izatetik 13,8 izatera).

Eremu mistoari dagokionez, erdara nagusitzen bada ere, euskara eta erdara erabiltzen dutenen kopurua igo egin da (%3,63 izatetik %5,56era). Arestian aipatu dugun bezala gero eta elebidun gehiago daude eremu mistoan eta horrek etxeko erabileran eragin zuzena duela esango nuke.

Azkenik, eremu erdaldunean, deigarria bada ere, euskararen etxeko erabilerak gora egin du hamar urtetik hona (%0,4tik %0,5era). Bestetik, euskara eta erdara ere gero eta gehiago erabiltzen da (%0,6tik %1,5era).

Ezinbestekoa da aipatzea arlo honetan euskal eskola eta eragile ezberdinek egiten duten lana goraiatzea. Izan ere, egiten dituzten hainbat ekintza ezberdinei esker ditugu egungo emaitzak.

Laburbilduz, erabilerari buruzko emaitzetan eremu batetik bestera alde handiak daudela ikus daiteke.

Euskararen erabilera adinaren arabera

Nafarroa	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara erdara beste edo gehiago	%5,8	%4,9	%5,1	%5,7	%7,3
Euskara erdara baino gutxiago	%3,3	%4,1	%4,3	%5,7	%7,4
Ia beti erdaraz	%90,9	%90	%90,6	%88,6	%85,3
Guztira	%100	%100	%100	%100	%100

V.Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Inkesta Soziolinguistikoa dioenez, adinaren arabera aztertuz gero, Nafarroako gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. 16 eta 24 urtekoen artean % 7,3k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eta % 7,4k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gainerako adin-taldeetan euskara, neurri batean zein bestean, erabiltzen dutenen portzentajeak % 6 baino txikiagoak dira.

Eremu euskalduna

	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara erdara beste edo gehiago	%49,5	%43,1	%43,9	%56,7	%60,9
Euskara erdara baino gutxiago	%5,9	%8,39	%8,3	%7,7	%10,2
Guztira	%55,4	%51,4	%52,2	%64,4	%71,1

V.Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Eremu euskaldunean ere gazteen artean dago euskara erabiltzen dutenen ehunekorik handiena. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 56,7 dira 25 eta 34 urtekoen artean, eta % 60,9 16 eta 24 urtekoen artean.

Azken horien artean, gainera, % 10,2k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago. Gainerako adin-taldeetan, erdia baino gutxiago dira euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, eta ehunekorik handiena 65 urtetik gorakoek dute (% 49,5).

Eremu mistoa


	>=65	50-64	35-49	25-34	16-24
Euskara erdara beste edo gehiago	%0,8	%0,9	%1,7	%1,8	%4
Euskara erdara baino gutxiago	%4,8	%4,5	%5,4	%8,2	%10,9
Guztira	%5,6	%5,4	%7,1	%10	%14,9

V.Inkesta Soziolinguistikoa 2011

Eremu mistoan oro har adin-talde guztietan euskara erdara baino gutxiago erabiltzen dute. Baina hala ere gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak % 4 dira 16 eta 24 urtekoen artean, eta % 2 baino gutxiago gainerako adin-talde guztietan. Euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, % 10,9 dira 16 eta 24 urtekoen artean eta, % 8,2 25 eta 34 urtekoen artean. Gainerako adin-taldeetan % 5 inguru dira.

Azpimarratzekoa da duela 10 urte askoz txikiagoa zela D edo B ereduaren aldeko hautua (% 38,3) eta askoz handiagoa A edo G ereduaren aldekoa (% 55,1).

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutena 2001.urtearekin alderaturik




V.Inkesta Soziolinguistikoa 2001-2011

Azken hamarkadako bilakaera aztertuz gero, euskara erdara beste erabiltzen

duteren artean, gazteak dira gora gehien egin duten adin-taldea. 16-25 urte arteko adin taldeak gora egin duen heinean, 35 urte gorakoek zertxobait behera egin dute.

4.5. EUSKARARI BURUZKO JARRERAK



V. Inkesta Soziolinguistikoa. 2011

Euskara sustatzeari buruzko jarrerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak egindako inkestak, 16 urtetik gorako biztanleria hartu da kontutan.

Grafikoan ikus daiteken modura, biztanleriaren %37,7 euskara sustzearen alde agertzen da eta %34,5 aurka.

Bestalde, 1991ko datuekin alderatzen badugu, euskararen aldeko jarrerak gora egin duela esan daiteke (%21,6tik 37,7era). Era berean, deigarria da aurka daudenen beherakada (%51,8tik 34,5era).

Eremuka ikusiz gero, euskara sustatzearen aldeko jarrera askoz handiagoa da eremu euskaldunean (%69), eremu mistoan (%42,5) eta eremu ez

euskaldunetan baino (% 22,5).

Euskararekiko jarrera aztertzeko ,aipatzekoa da Soziolinguistikako Klusterrean ,Carlos Vilches eta Mikel Vilchesek Bat Aldizkarirako argitaratu zuten Euskararen egoera Nafarroa garaian artikulua .

Bertan, Jesús Azconak 1985. urtean Límites geográficos-sociales del euskera en Navarra izeneko lana aipatzen da. Nafarroako eskualdekatze zehatz batetik abiatuta, begirada kualitatiboa hizkuntzara eta gizartera bideratzen du Azconak baina ikuspegi antropologiko batetik, nabarmen. Ez dago datu portzentalik, testuinguruen eta jarreraren arteko erlazioaren behaketa zorrotza eta konklusio argiak baizik.

Azconaren arabera, 70eko hamarkadatik aurrera euskarari buruzko balorazio politikoetan halako bifurkazio bat gertatu zen (positiboa-negatiboa), aurreko denboretako egitura sozial eta politikoak eragindako tentsio sozialak memoria kolektiboan kondentsatzearen ondorioz. Aurreraxeago dio bipolaritate horri eusten dioten adierazle ideologikoak ondoko hauek direla: batetik, eskuina oro har eta eskuin nafarzailea zehazki, eta bestetik, euskal abertzaletasun erradikala. Bere iritziz, hizkuntzaren tentsio nagusia, oraindik ere, politikoa da.

Ikerlan horretan azaltzen diren ondorioetatik ondorengo hau aipatu behar da: "...garbi somatu dugu Nafarroa osoan euskararen funtzio komunikatiboaren galtze prozesuari aurre egiteko ahalegin sozial bat. Ahalegin hori hizkuntzaren irudi sozialaren aldaketaren ondorioa da. Argi dago Administrazioa ezin daitekeela Nafarroako kultur balore hori berreskuratzeko ahalegin sozial horretatik bazter gelditu." (itzulpena beraiena da).

Adin bateko euskaldunek zuten gutxiagotasun-konplexua desagertzen ari da belaunaldi berrietan. Txostenaren egileak, azkenik, garai hartan (1985) euskarari buruzko diskurtso sozialean euskaraz jakiteak eta lana aurkitzeak lotzen dituen ikuspegi pragmatiko baten zantzuak somatzen ditu.

Jesús Azkonaren ikerketa kualitatiboaren ondoren, 1990. urtean, CIES enpresak Estudio de las actitudes de los navarros ante el euskera izeneko lana egin zuen Nafarroako Gobernuak eskaturik. Ikerlan horretarako 3.035 elkarrizketa egin ziren.

Ateratako ondorioak ondokoak izan ziren: euskararen aldeko jarrerak, batez ere, Nafarroako iparraldean, berrogei urtetik beherakoen taldean,

abertzaleengan, egoera ekonomiko ertaina edo ertain-altua dutenen taldean, eta kultur maila altu samarreko jendearengan agertzen dira. Euskararen kontrako jarrerak, berriz, talde hauetan: Nafarroako hegoaldeko biztanleak, eskuindarrak, maila sozio-ekonomiko altua edo baxua, adinekoak eta ikasketak maila apalekoak.

Azken urteotan Nafarroan egin diren ikerketa soziolinguistiko gehien-gehienek garrantzi handia eman diote Nafarroan euskara sustatu beharraren auziari, galderak ezberdinak izan badira ere. Jesus Azconaren ikerketa hartan egindako irakurketa kualitatiboak euskara berreskuratzearen aldeko jarrera, sumatu behintzat, sumatzen zela iradokitzen zuen.

Taller de Sociología, S.L. enpresak 1995. urtean egindako Euskara Nafarroan zertan den – Investigación sociolingüística sobre el euskera en Navarra izeneko ikerlanean ahalegin tekniko eta metodologiko handia egin zen Nafarroako Euskarari buruzko Legeak ezarritako hiru eremuetan hizkuntzaren azterketa sakona egiteko.

Ikerketa horretan ateratako emaitzen arabera, nafarren %70,7 euskara sustatzearen aldekoa zen eta %23,8 kontrakoa. Kontrakoen taldean, batik bat, erdaldunak, hirurogei urtetik gorakoak, eskuindarrak eta ikasketak arauturik ez zutenak agertu ziren.

2001eko Euskararen Jarraipena ikerlanean, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herri osoa aztertu zen. Datuen arabera, nafarren %29 euskara sustatzearen alde agertu zen, %37 kontra, eta %37 ez alde, ez kontra. Aipatzekoa da CIESeK 1990. urtean egindako ikerketan jasotakoak baino gutxiago dira (19,1 puntu portzentualeko galera 1990etik 2001era bitartean). Argi dago erantzunak, neurri handi batean, galderak egiteko moduagatik baldintzatuak daudela, baina era berean gogoeta egiteko beharra azaltzen da, aldeak handiegiak baitira.

Euskararen garapenari buruz galdetutakoan ez alde eta ez aurka dauden multzoak, alde edo kontra egin behar euskara sustatzearen eta garatzearen aldera jotzen du nabarmen. Horrek garbi azalduko litzateke azterketa batetik bestera ditugun itxurazko diferentzia horiek. Beraz, emaitza hoiak aztertutik, multzo hori erakarri beharko litzateke, funtsean, euskararen aldeko jarrera dagoelako. Horretarako, lehenbizi, euskararekiko duten jarrera landu aztertu beharko litzateke, etorkizunean haiengana zuzenduriko hizkuntza politika egokiak diseinatu eta aplikatzeko.

4- LABURBILDUZ

- Oro har Nafarroan , duela hamar urte baino gazte gutxiago eta adineko gehiago bizi dira .Biztanlegoa zaharragoa dela esan daiteke.
- Biztanlegoaren % 13,81 elebiduna da, % 14,30 elebidun hartzailea eta % 79,8 erdalduna. Nafarroako elebidunen ehunekoak gora egin du nabarmen azken hamarkadan. Aipatzekoa da gero eta guraso gehiago daudela bere seme-alabak D eredura matrikulatzea erabakitzen dutenak.
- Ingeleseko programa berriek,eragin zuzena izango du ereduaren sisteman eta oro har hezkuntza sisteman.
- Elebidunen ehunekorik handiena gazteen artean dago(%20,8)
- Nafarroako elebidunen % 47,5 eremu euskaldunean bizi da eta % 45,3 eremu mistoan. Eremu ez euskaldunean elebidunen % 7,2 bizi da.
- Eremuen artean alde esanguratsuak daude.Eremu euskaldunean ama hizkuntza euskara da biztanlegoaren ia erdiarentzat (%42,64).Aldiz eremu mistoa eta erdaldunean erdara da nagusi (%85,04 eta %88,06)
- Eremu mistoan daude elebidun kopururik gehienak.Aldiz etxean ez da ia euskara soilik erabiltzen(%2,7).Euskara eta erdararen erabilera ordea, igo egin da(%0,6tik 1,5era).
- Nafarroako biztanleen % 4,5ek etxean euskara erabiltzeko hautua egiten dute, ha u da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dute. Beste % 4,38ak euskara eta erdara erabiltzen du. Gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Azken hamarkadan, euskararen erabilerak gora egin du esparru formaletan, ia ez du gorabeherarik izan esparru informal hurbilenetan,eta behera egin du etxean .
- 1991.urtetik 2011.urtera euskararen aldeko jarrerak gora egin du (%21,6tik 37,7era).Era berean, deigarria da aurka daudenen beherakada(%51,8tik 34,5era).
- Azconaren arabera, 70eko hamarkadatik aurrera euskarari buruzko irudi

soziala aldatzen hasi zen.1985ean euskarari buruzko diskurtso sozialean euskaraz jakiteak eta lana aurkitzeak lotzen dituen ikuspegi pragmatiko baten zantzuak somatu zuen.

- Biztanlegoari euskararen garapenari buruz galdetutakoan ez alde eta ez aurka dauden multzoak,alde edo kontra egin beharrean euskara sustatzearen eta garatzearen aldera jotzen du nabarmen.

7- BIBLIOGRAFIA

- Nafarroako Estatistika Institutua.2001 eta 2011.urteko erroldak.

(www.cfnavarra.es/estadistica/confindex.asp?i=Informaci%F3n%2B Estad%ED stica&p=ie/indice2.asp?qry=01&d=ie/idx_izq.asp?qry=01&b=Informaci%F3n)

- Eusko Jaurlaritza (2011). *V.Inkesta Soziolinguistikoa*.

(http://www.euskara.euskadi.net/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf)

- Barreña A. eta Juaristi P.(2013-2014). Hiznet Hizkuntza Plangintza Ikastaroa, Mod.Zkia.1.1. *Hizkuntza Gutxituak Nazioarte Mailan*.

- Vilches C. eta Vilches M.(2006). Soziolinguistika Klusterra.BAT Aldizkaria.*Euskarak Nafarroan izan duen bilakaeraren datu soziolinguistiko batzuk*.(www.soziolinguistika.org/node/3160)

- Euskarabidea (2008). *Euskararen egoera Nafarroan*.

(<http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/situacion-euskera-euskera-castellano1.pdf>)